

POSTER ZIENTIFIKOAREN ERRUBRIKA

Ikaslearen izena: _____

ARLOAK	4	3	2	1
Informazioaren edukia	Datu esanguratsu guztiak ageri dira (galdera, hipotesia, informazio-iturriak, prozesua, datu-erregistroa, ondorioak...). Informazioa ondo ordenatuta dago, eta funtsezko ideiak nabarmenduta.	Datu esanguratsu guztiak ageri dira. Informazioa ordenatuta dago, baina ez dira desberdintzen ideiak garrantzitsuak eta bigarren mailakoak zein diren.	Informazioa urria da, baina ordenatuta dago. Datu esanguratsuren bat falta da.	Datuak ez daude osatuta, ez daude ordenatuta, ezta garrantziaren arabera nabarmenduta ere.
Irudiak, grafikoak, argazkiak	Ematen dute informazio esanguratsua. Egokiak dira, edukiari eta formari dagokienez. Neurriari dagokionez, egokiak dira duten garrantzirako eta osagarri diren testurako	Egokiak dira edukiari dagokionez, baina, neurriari dagokionez, ez dira egokiak osatzen duten testuak duen garrantzirako	Ez dira egokiak, edukiari eta formari dagokienez. Guztiak ez daude gaiarekin erlazonaturik, eta neurria ere ez da egokia ematen duten informazioak duen garrantzirako.	Ez dira egokiak, edukiari eta formari dagokienez. Apaingarri baino ez dira.
Diseinua	Behar dituen elementu guztiak ditu. Ondo antolatuta dago, eta erraza da irakurtzea. Itxura erakargarria eta originala du, hartzaileari egokituta dago eta gaiarekin koherentea da.	Betetzen du bere helburua. Produktu egoki bat da. Irudiak egokitzen dira edukira, eta beharrezko elementu guztiak ditu.	Ez da oso erakargarria, eta desordenatuta dago; horrek ez du irakurtzea errazten. Elementu batzuk ez dira oso egokiak edukiari dagokionez, eta akabera hobetzekoa da.	Posterra ez da batere erakargarria, eta zaila da irakurtzea. Erlazio gutxi dago elementu eta edukien artean. Bukatu gabe dagoenaren itxura du.

